


Gipuzkoak ondoz ondoko bigarren urtez gaintitu zuen Europako I+Gko gastuaren batezbestekoa BPGren arabera

BPGren arabera % 2,23koa izan zen Gipuzkoan, % 1,73koa Bizkaian eta % 1,46koa Araban

Eustaten datuen arabera, lurralde guztien artean Gipuzkoak egin zuen ahaleginik handiena I+Gn, BPGren arabera neurtuta betiere: % 2,23. Horrela, ondoz ondoko bigarren urtez gaintitu zuen 27 kideko Europaren batezbestekoa (% 1,90). Bizkaia % 1,73ko gastua egin zuen eta Arabak % 1,46koa. Hau da, hiru lurraldeek gaintitu zuten Espainiako batezbestekoa (% 1,35).

2008. urtean, Euskal AEn guztira 1.264 milioi euro gastatu ziren (BPGren % 1,85) Ikerketa Zientifikoari eta Garapen Teknologikoari lotutako jardueretan (I+G). Gastua honela banatu zen hiru lurraldeen artean: Bizkaian 598 milioi (Euskal AEko gastu osoaren % 47), Gipuzkoan 501 milioi (% 40) eta Araban 165 milioi (% 13).

1. grafikoa: I+Gko barne-gastua, BPGari dagokionez (%)




Iturriak: Eustat eta Eurostat

2007. urtearen aldean, I+Gn egindako barne-gastua % 16 gehitu zen Euskal AE osoan. Bizkaian eta Araban % 19 eta % 18 gehitu zen gastu hori, hurrenez hurren; beraz, lurralde bi hauek batezbestekoa gaintitu zuten, baina Gipuzkoak gastua % 12 gehitu zuen.

Kapital-gastua bakarrik kontuan hartuta (lur, eraikin, ekipo eta tresnetan egindako inbertsioak) guztira 231 milioi euro gastatu ziren 2008. urtean; beraz, aurreko urtean baino % 8 gehiago, batez beste. Eta hazkunde hori honela eman zen lurralde bakoitzean: Bizkaian % 16 gehitu zen, Araban % 13 eta Gipuzkoan % 1.

2. grafikoa: I+Gn egindako barne-gastua, egikaritze-sektorearen arabera (%)



Iturria: Eustat

Egikaritze-sektoreari dagokionez, hiru lurraldeetan eman ziren 2007ko sektoreen arabeko gastuaren ehuneko berberak. Baina denen artean enpresen sektorea nabarmendu behar da, gastuaren ehuneko handiena egin baitzuen; haren atzetik gastu handia egin zuten unibertsitate sektoreak eta gero herri administrazioen sektoreak izan ziren. Lurralde historiko bakoitzak, hala ere, ezaugarri bereziren bat izan zuen.

Araban herri administrazioaren sektorean egin zen gasturik handiena (lurralde honetako gastu osoaren % 8,3); Bizkaian gastu horren erdia egin zen (% 4,7) eta Gipuzkoan soilik % 1,7.

Gipuzkoan enpresen sektorearen gastua % 87,1 izan zen, Araban % 79 eta Bizkaian % 76,6.

Bizkaian unibertsitate sektorearen gastua izan zen nagusi, lurraldeko gastu osoaren % 18,7arekin. Dena den, hiru lurraldeetan egin zuen pixka bat behera unibertsitate sektorearen gastuak; batez ere Araban, 2007. urtean % 13,7koa izan zelako baina 2008an % 12,6koa.

Aurreko urteetan bezala, ingeniariaren eta teknologiaren **diziplina zientifikoan** eman zen gastu handiena; diziplina honek izan zuen lurralde historiko guztietan, gainera, langile gehien. Gastuaren ehuneko hori Gipuzkoaren % 77tik Bizkaia eta Arabaren % 68ra bitartean egon zen.

Emakumeek I+Gn izan zuten **partaidetzari** dagokionez, Gipuzkoako emakume guztien % 30ak, Arabako % 33ak eta Bizkaiko % 36ak parte hartu zuen.

1. taula: I+Gko adierazleak lurralde-eremuaren arabera. Urte bat 2008

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskal AE	Espainia	Europar Batasuna
I+G GASTUAK (%) /BPG	1,46	1,73	2,23	1,85	1,35	1,90
I+G GASTUAK (%)						
FINANTZAKETAREN ARABERA						
Enpresak	60,4	55,0	55,9	56,0	45,0	55,0
Administrazioa	36,3	40,8	41,0	40,3	45,6	34,5
Bestalako iturriak	0,2	0,5	0,2	0,3	3,7	1,6
Atzerria	3,2	3,7	3,0	3,3	5,7	8,9
I+Gko PERTSONALA (DOB) *						
Pertsonala guztira	2.244	6.893	6.236	15.373	215.676	2.455.192
Ikertzaileak	1.205	4.551	3.885	9.640	130.986	1.504.575

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturriak: Eustat, EIN eta Eurostat

Enpresen **finantzaketa** (% 56), ikerketarako baliabide pribatuei dagokienez, garrantzitsua izan zen hiru lurralde historikoetan eta ondorioz hauek Estatuko (% 45) eta Europako (% 55) batezbestekoa gainditu zuten. Araban % 60,4koa izan zen baina Bizkaian eta Gipuzkoan % 55 eta % 55,9koak, hurrenez hurren.

Enpresen sektoreak I+Gn egindako gastuaren % 30 guztira 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan egin zen, eta % 37 ikerketa enpresetan.

Enpresen sektoreko I+G gastuaren % 30 guztira 50 langile baino gutxiagoko enpresek egin zuten. Araban % 44raino igo zen ehuneko hori, 2007. urtearen aldean 4 puntu igota. Gipuzkoak % 27ko gastua egin zuen, hau da, 2007. urtearen aldean % 5 txikiagoa. Bizkaia, aldiz, urte batetik bestera ia kopuru bera mantendu du % 29.

Jarduera nagusitzat I+Gko zerbitzuak dituzten enpresek 376 milioi eurotik gorako I+Gko barne-gastua egin zuten (enpresen I+Gko gastuaren % 36,8). Gastu horren lurraldeen arabera banaketa 2007koaren oso antzekoa izan zen: Gipuzkoan gastuaren % 52 egin zen, Bizkaian % 37 eta Araban gainerako % 11.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Vázquez Sancho

Tel.:+34-945-01 75 48 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp